








	ZERBITZUAREN FITXA TEKNIKOA			
	ZUBI SALTOA – ATXAZPI			
	Kodea: IP 5.4.2	Edizioa: 11	Data: 2022-04-06	

JARDUERAREN OINARRIZKO DESKRIBAPENA


	JARDUERA EDO ZERBITZU MOTA	ZERBITZUA	
	<a href="#">ZUBI SALTOA</a>	<a href="#">ATXAZPI</a>	
	DESKRIBAPEN TEKNIKOA		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sentsazio gogorren bila zabilatzatenei zuzenduriko jarduera.</li> <li>- 40 metro inguruko zubian burutzen den 20 metro inguruko jauzia.</li> <li>- Harkaitzei begira salto egin ondoren pendulu erraldoiak itsasora begira jarriko gaitu.</li> <li>- Adrenalina eta zirrara dosi itzela.</li> </ul>			
DESKRIBAPEN FISIKOA			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atxazpiko zubian bertan geratuko gara, ikusi atxikitako mapa.</li> <li>- Segurtasun neurriei buruzko azalpenak eman ondoren jarduera hasiko da.</li> <li>- 2 eta 3 ordu arteko iraupena duen jarduera.</li> </ul>			
JARDUERAREN BESTE XEHETASUN BATZUK			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Saltoa aurrera begira burutuko da, besoak luzaturik eta oinak lotzen dituen zinta bat erabiliz.</li> <li>- Zubiaren alde batetik salto egingo dugu, sokak bestaldea lotuta egongo dira.</li> <li>- Horrela, pixkanaka indarra galtzen joango den pendulu handi bat burutuko dugu.</li> <li>- 2 eskalada soka erabiliko dira, eta horietako bakoitza 3 puntutan loturik egongo da.</li> <li>- Partaideek arnes integral bat eta kaskoa erabiliko dute.</li> </ul>			
OHARRA			
<p><i>Jardueran zehar, bakarrik salto egingo duen pertsona eta teknikariak egon daitezke errepidean.</i></p> <p><i>Partaideak enpresari ondorengo informazioa luzatzera behartuta daude: desgaitasun psikologiko edo fisikoren bat izatea, gaixotasun kardiobaskularren bat izatea edo ahurdun egotea.</i></p> <p><i>Salto egin aurretik teknikari arduradunak ongi azalduko du nola egin behar den, baina azken saltoaren erantzukizuna partaidearena berarena da, eta teknikariek ezingo dute kontrolatu bakoitzak nola salto egin duen.</i></p>			
GUTXI GORA BEHERAKO IRAUPENA		SASOIA	
2-3 ordu		Urte osoan zehar	
LEKUA	ELKARGUNEA		KOORDENADAK
Atxazpiko zubia Berriatua (Bizkaia)	Atxazpiko zubia Lekeitio eta Ondarru artean ( <a href="#">Google Maps</a> )		43.3316240, -2.4409440
TARIFAK (%21 BEZ barne)			
	PARTIKULARRAK	ESKOLA ETA ERAKUNDEAK	
6-15 pax	50,00 €	45,00 €	
16-30 pax	45,00 €	40,00 €	
31-50 pax	40,00 €	35,00 €	
OHARRA: Ikastetxe, elkarte eta erakundeei neurritan eginiko aurrekontuak eskatzeko aholkatzen dizuegu.			

	ZERBITZUAREN FITXA TEKNIKOA			
	ZUBI SALTOA – ATXAZPI			
	Kodea: IP 5.4.2	Edizioa: 11	Data: 2022-04-06	

### DATOS FÍSICOS Y TÉCNICOS

PARTAIDE KOPURU MINIMOA		PARTAIDE KOPURU MAXIMOA	
10 pertsona		Definitu gabe (kontsultatu talde handientzat)	
ZAILTASUN MAILA	AHOLKATUTAKO ADIN MINIMOA	RATIOA	
II – (Ertaina)	12 urte	Bi begirale 10 partaideko	
BEHARREZKO GAITASUN PERTSONALAK			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Edonork egiteko moduko jarduera.</li> <li>- Galdetu lesio muskular, zerbikal edo bihotzeko gaitzen bat izanez gero ea jarduera burutzerik duzuen.</li> <li>- Ahurdun dauden pertsonak ezingo dute jarduera hau egin.</li> <li>- Galdetu desgaitasunen bat duten pertsonak jarduera burutu dezaket.</li> </ul>			
OHARRAK:			
<p><i>Partaideak enpresari ondorengo informazioa luzatzera behartuta daude: desgaitasun psikologiko edo fisikoren bat izatea, gaixotasun kardiobaskularren bat izatea edo ahurdun egotea.</i></p>			
MATERIALA ETA EKIPAMENDUA			
<p>JARDUERAN SARTZEN DIREN MATERIALAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kaskoa.</li> <li>- Jarduera burutzeko beharrezkoa de material teknikoak. (Sokak eta segurtasun materialak).</li> </ul> <p>JARDUERA BURUTZEKO NAHITAEZKO MATERIALA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mendiko arropa erosoak, eguraldiaren arabera.</li> <li>- Egoera onean dauden mendiko botak, jauzi egin ondoren zubira igotzeko.</li> <li>- Ur botila bat pertsonako. (ez da nahitaezkoa)</li> <li>- Toalla, eta arropa eta oinetako aldagarriak. (Euria egiten duen egunetarako)</li> </ul> <p>OHARRA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da gomendatzen kaleko arropak eramatea, batez ere zubirako bueltako bidea igotzeko.</li> </ul>			
ARGAZKIAK		BIDEOAK	
Ez dago argazki bildumarik		<p><a href="#">Zubi saltoa Atxazpin (2014)</a></p> <p><a href="#">Zubi saltoa Atxazpin (2013)</a></p> <p><a href="#">Zubi saltoa Inguru Abenturarekin 2012</a></p>	
BARNE DAUDEN ZERBITUZAK		BARNE EZ DAUDEN ZERBITZUAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espezializatutako begiraleekin burututako jarduerak.</li> <li>- Jarduera burutzeko behar den material teknikoak.</li> <li>- Erantzukizun Zibil eta Osasun Arreta aseguruak.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Garraioak.</li> <li>- Jana eta edaria.</li> <li>- Ostatua, galdetu behar izatekotan.</li> </ul>	
JARDUERAKO ARGAZKIAK			
			
			
			

## JARDUERAREN MAPA



ELKARGUNEA



APARKALEKUA



DESPLAZAMENDUA



2. APARKALEKUA



GERTURATZEA/BUelta



HASIERA



AMAIERA

## NOLA IRITSI

**BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZTIK:**

Bilbo eta Donostiatik AP8 errepidea hartu Debara iritsi arte (Gasteiztik AP1 eta AP8). Behin Debara iristean, BI3438 errepidea hartu Ondarroarantz. Bilbo tik Markinara ere joan daiteke, eta ondoren BI-633 errepidetik Ondarroara iritsi (bidesaririk ordaindu gabe).

**ONDARROATIK:**

1. BI-3438 errepidea hartu portuan Lekeitiora bidean.
2. 3 km inguru igarotzean Atxazpiko zubia zeharkatuko duzue, adi egon.
3. Zubia pasatu ondoren, aurkako errailean aparkaleku bat ikusiko duzue. Ez aparkatu zuzenean, trafiko seinaleak errespetatu.
4. Ezkerraldean dagoen norabide aldaketaraino jarraitu. Kontuz, ikuspena ez da oso ona.
5. Buelta hartu eta aparkatu lehen ikusitako aparkalekuan.
6. Norabide aldaketa egiteko gunea pasatuz gero, 500 metro ingurura baserri batean buelta hartu daiteke.

**LEKEITIOTIK:**

1. Herria gurutzatu eta BI-3438 errepidea hartu Ondarroarantz.
2. 9 km inguru igarotzean, adi egon.
3. Zuzen baten ondoren kurba bikoitz bat igaroko duzue.
4. 500 metro ingurura aparkaleku bat aurkituko duzue eskuin errailean. Aparkatu bertan.
5. Aparkalekua pasatuz gero, buelta emateko aukera duzue aurrerago eta Ondarroatik etortzeko jarraibideak jarraitu.

**BEHIN PARKINERA IRISTEAN**

Errepidea gurutzatu eta ezker errailetik zubiraino gerturatu, Ondarroarako noranzkoan. Behin zubira iristean segurtasun babesen barruan sartu errepidetik salbu egoteko.